**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
**Luz./Ext.** 910
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

**GIZARTE EKINTZA**
gizartekintza@pasaia.net



| ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN UDAL ARAUTEGIA | REGLAMENTO MUNICIPAL REGULADOR DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO |
|---|---|
| 2018ko ekainaren 20an | 20 de junio de 2018 |

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 910
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

GIZARTE EKINTZA
gizartekintza@pasaia.net



| AURKIBIDEA | ÍNDICE |
|---|---|
| **ARRAZOIEN AZALPENA** | **EXPOSICIÓN DE MOTIVOS** |
| **LEHEN TITULUA** | **TITULO PRIMERO** |
| 1.artikulua. Xedea. | Artículo 1. Objeto. |
| 2.artikulua. Aplikazio eremua. | Artículo 2. Ámbito de aplicación. |
| 3.artikulua. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren definizioa. | Artículo 3. Definición del Servicio de Ayuda a Domicilio. |
| 4.artikulua. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren helburuak. | Artículo 4. Objetivos de los servicios domiciliarios. |
| **BIGARREN TITULUA** | **TITULO SEGUNDO** |
| ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA | SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO |
| I. KAPITULUA. ZERBITZUAREN BAITAKO ETA ZERBITZUAZ KANPOKO PRESTAZIOAK, ALDAERA ETA EZAUGARRIAK. | CAPITULO I. ACTUACIONES INCLUIDAS Y EXCLUIDAS EN EL SERVICIO, VARIANTE Y CARACTERÍSTICAS. |
| 5.artikulua. Zerbitzuaren baitako eta zerbitzuaz kanpoko prestazioak. | Artículo 5. Actuaciones incluidas y excluidas. |
| 6.artikulua. Zerbitzuaren aldaera: atsedenerako zerbitzua. | Artículo 6. Variante del servicio: Servicio de Respiro. |
| 7.artikulua. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ezaugarriak. | Articulo 7. Características del Servicio de Ayuda Domiciliaria. |
| II.KAPITULUA.- ERABILTZAILEAK. | CAPITULO II. DE LAS PERSONAS USUARIAS. |
| 8.artikulua. Erabiltzaileak zehaztea. | Artículo 8. Determinación de las personas usuarias. |
| 9.artikulua. Zerbitzuan sartzeko baldintzak. | Artículo 9. Requisitos generales de acceso. |
| 10.artikulua. Erabiltzaileen eskubideak. | Artículo 10. Derechos de las personas usuarias. |
| 11.artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak. | Artículo 11. Obligaciones de las personas usuarias. |
| III.KAPITULUA.- ZERBITZUAN SARTZEKO PROZEDURA. | CAPITULO III. DEL PROCEDIMIENTO DE ACCESO. |
| 1.ATALA. Eskatzaileen zerrendan sartzea. | SECCIÓN 1ª. del acceso a la lista de demandantes. |
| 12.artikulua. Eskatzaileen zerrenda. | Artículo 12. Lista de demandantes. |

| | |
|---|---|
| 13.artikulua. Zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko eskaria. | Artículo 13. Solicitud de acceso a la lista de demandantes del servicio. |
| 14.artikulua. Eskariarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa. | Artículo 14. Documentación que se deberá adjuntar con la solicitud. |
| 15.artikulua. Izapidetzea. | Artículo 15. Tramitación. |
| 15.1. Beharrizanen ebaluazioa. | 15.1. Evaluación de las necesidades. |
| 15.2. Gizarte Txosten proposamena. | 15.2. Informe Social – Propuesta. |
| 16.artikulua. Ebazpena. | Artículo 16. Resolución |
| 17.artikulua. Premiazko egoerak. | Artículo 17. Situaciones Urgentes. |
| 2. ATALA.- ZERBITZUAREN ONESPENA ETA ZERBITZURAKO SARBIDEA. | SECCIÓN 2ª.- DE LA ADMISIÓN Y ACCESO AL SERVICIO. |
| 18.artikulua. Zerbitzuaren onespena. | Artículo 18. La admisión al servicio. |
| IV. KAPITULUA. ZERBITZUAREN EGOKITZAPENA ETA JARRAIPENA. | CAPITULO IV. ADAPTACIÓN Y SEGUIMIENTO DEL SERVICIO. |
| 19. artikulua. Jarraipena eta ebaluazioa | Artículo 19. Seguimiento y evaluación. |
| 20. artikulua. Egokitzapena. | Artículo 20. Periodo de adaptación. |
| V. KAPITULUA. ZERBITZUA ETETEA ETA IRAUNGITZEA. | CAPITULO V. SUSPENSIÓN Y EXTINCIÓN DEL SERVICIO. |
| 21. artikulua. Zerbitzua etetea eta iraungitzea | Artículo 21. Suspensión y extinción del servicio. |
| 21.1 Zerbitzua aldi batez etetea. | 21.1 Suspensión temporal del servicio. |
| 21.2 Zerbitzua iraungitzea. | 21.2 Extinción del servicio. |
| VI.KAPITULUA.- ZERBITZUAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA. | CAPITULO VI.- RÉGIMEN ECONÓMICO DEL SERVICIO. |
| 22.artikulua. Prezio publikoa. | Artículo 22. Precio público. |
| 23.artikulua. Finantzaketa. | Artículo 23. Financiación. |
| 24.artikulua. Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena. | Artículo 24. Aportación de la persona usuaria del servicio. |
| LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA | DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA |
| BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA | DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA |
| XEDAPEN INDARGETZAILEA | DISPOSICIÓN DEROGATORIA |

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 910
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

GIZARTE EKINTZA
gizartekintza@pasaia.net



| | |
|---|---|
| AMAIERAKO LEHEN XEDAPENA | DISPOSICIÓN FINAL PRIMERA |
| AMAIERAKO BIGARREN XEDAPENA | DISPOSICIÓN FINAL SEGUNDA |
| I. ERANSKINA: ZERBITZUAN SARTZEKO BAREMOA | ANEXO I. BAREMO DE ACCESO |
| II ERANSKINA: EKARPEN EKONOMIKOAREN BAREMOA | ANEXO II. BAREMO DE APORTACIÓN ECONÓMICA DE LAS PERSONAS USUARIAS |

## ARRAZOIEN AZALPENA

Egungo Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren udal-araudiak, Gizarte Zerbitzuen 1996ko Legean ezarritakoari jarraiki onartutakoak, egokitzapen bat eskatzen du, azken urteetan legegintzan egin diren garrantzizko aldaketei dagokienez.

Bai Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko **abenduaren 14ko 39/2006 Legea**, bai **Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea** onartzeak ondorio nabarmenak izan ditu gizarte zerbitzuen alorrean.

Zehazki, **12/2008 Legeak** erantzukizun soziala duten gizarte-zerbitzuen sistema integratu bat ordenatu eta egituratzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, herritar guztiei gizarte-zerbitzuen euskal sistemako gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboa ziurtatzeko asmoz, prestazio edo zerbitzu bakoitzerako araututa dauden aipatutako sistemara sartzeko baldintza orokorren eta baldintza berezien barruan, eta horretarako:

22. artikuluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoa definitzen du; horrek etxez etxeko laguntza zerbitzua barne hartzen du, eta zerbitzu horiek emateko eskumena udalei ematen die.

**185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak,** 12/2008 Legea garatzen duenak, aipatutako eskubide subjektiboa zedarritzen du, Gizarte Zerbitzuen Legearen katalogoan zehazten diren baldintzak, irizpideak eta prestazioetarako eta zerbitzuetarako sarbidea erregulatuz.

Esandako aldaketa arauemaileez gain, errealitate sozialean ere bilakaera bat antzeman dezakegu: adinekoen hazkunde demografiko

## EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El actual reglamento municipal del Servicio de Ayuda a Domicilio aprobado en base al marco legal establecido en la Ley de Servicios Sociales de 1996, requiere una adaptación a los importantes cambios legislativos que se han producido en los últimos años.

La aprobación tanto de la **Ley 39/2006, de 14 de diciembre,** de Promoción de Autonomía personal y Atención a las personas en situación de dependencia, como de la **Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales,** han tenido una repercusión notable en el ámbito de los servicios sociales.

En concreto la **Ley 12/2008**, ordena y estructura un sistema integrado de servicios sociales de responsabilidad pública, a fin de garantizar en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el derecho subjetivo de toda la ciudadanía de acceso a las prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, dentro del marco de los requisitos generales de acceso al mencionado sistema y de los requisitos de acceso específicos que se regulen para cada prestación o servicio, y para ello:

En su artículo 22 define el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, entre los que incluye el Servicio de Ayuda Domiciliaria, cuya provisión es competencialmente atribuida a los Ayuntamientos.

El **Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales**, en desarrollo de la Ley 12/2008, delimita el derecho subjetivo mencionado, regulando las condiciones, criterios y procedimientos de acceso a las prestaciones y servicios establecidos en el catálogo de la Ley de Servicios Sociales.

Además de dichos cambios normativos, también se ha dado una evolución en la realidad social; el aumento demográfico progresivo de las

mailakatua, bizi-itxaropena areagotzearen ondorioz, eta adin-piramidearen aldaketa gure gizartean. Familia-harremanetan ere aldaketak izan dira, gizarte-zerbitzuen babes eta garapenerako agente gisa. Haiek dira bizitza oso bat izateko beharrezkoak diren zerbitzuak definitzea sustatzen ari diren faktore garrantzitsuenetako bat, are gehiago mendetasun maila altua duten edo babes sozialik gabe dauden pertsonen kasuan.

Pertsonei beren mendetasun mailakatuan laguntzeko zerbitzuak nola eman pentsatu eta zehazteko, lehentasunezkoa da pertsona horiek ahalik eta denbora gehien beren etxean geratzeko nahia kontuan hartzea, bizitza osoan zehar izan duten erreferentziazko sare soziala mantenduz. Alabaina, etxebizitzaren inguruak, sarbideek, komunitateak dituen laguntza-zerbitzuek eta abarrek beste alderdi asko kontuan hartzea eskatzen dute, eta mendetasuna duen pertsonaren bizitza garatzeko aukerak mugatzen dituzte.

Mendetasun egoeran edo mendetasun egoeran egoteko arriskuan dauden pertsonei arreta emateko behar horrekin batera, egoera sozial konplexuak sortzen ari dira. Izan ere, zaurgarritasun edo ahultasun sozialeko egoeran bizi diren familia batzuek, beren beharrizanek oinarrizko arreta jaso dezaten, etxez etxeko laguntza behar dute.

Horrela, eguneroko bizitza jasangarriago egiteko, babes eta laguntza-zerbitzuak eskuragarri izateaz gain, zaurgarritasun edo ahultasun sozialeko egoerak jasaten dituzten eta mendetasun egoeran dauden pertsonek beren etxeetan eta komunitateetan haiek zaintzeko norbait izatea ezinbestekoa da, askotariko beharrizanetara egokitzeko eta denbora tarte ezberdinetan zatikatzeko gai izango dena, larrialdiak bere gain hartuko dituena eta zerbitzuaren beharretan eman litezkeen aldaketei bizkortasunez erantzun ahalko diena. Zentzu horretan, etxez etxeko laguntza Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman garrantzi estrategikoa duen zerbitzua da, elkarbizitzarako sostengua ematen baitio gizartean eta familian.

personas mayores, debido al aumento en la esperanza de vida y a la modificación de la pirámide de edad en nuestra sociedad, además del cambio en las relaciones familiares como agentes de protección y del desarrollo de los servicios sociales. Son ellos algunos de los factores que están impulsando la definición de los servicios necesarios para garantizar una vida plena, aún más en niveles graves de dependencia y de falta de apoyo social.

La voluntad reiterada de las personas en permanecer el mayor tiempo posible en su propio domicilio, manteniendo la red social de referencia que ha tenido a lo largo de toda la vida, es algo prioritario en la consideración y determinación de los servicios de apoyo a estas personas en su progresiva dependencia. Pero el entorno domiciliario, sus accesos, los servicios de apoyo en la comunidad, etc. exigen la toma en cuestión de muchos aspectos que condicionan y determinan las posibilidades de la persona dependiente en el ejercicio de su desarrollo vital.

Junto a esa necesidad de dar atención a las personas en situación de dependencia o en riesgo de dependencia se están generando situaciones sociales complejas, y existen personas o familias en situación de debilidad o vulnerabilidad social, que precisan ayuda domiciliaria para poder responder a sus necesidades de atención básica.

Así, además de disponer de servicios o elementos de protección y asistencia para hacer la vida diaria más llevadera a las personas en situación de dependencia que estén en situación de debilidad y vulnerabilidad social, es imprescindible que tengan un servicio que les atienda en su propio domicilio y en su propia comunidad, el cual sea adaptable a las necesidades más variadas y fraccionable en tiempos, que asuma intervenciones de urgencia y que pueda responder ágilmente a las modificaciones de la necesidad del servicio. En este sentido, la ayuda a domicilio es un servicio que sigue teniendo una importancia estratégica en el Sistema Vasco de Servicios Sociales para proporcionar apoyos para la convivencia personal y familiar en un contexto en el

Izan ere, sostengu hori ezinbestekoa da pertsona askoren bizi-kalitaterako eta lan-bizitza eta familia uztartzeko, emakumeen kasuan bereziki. Erabiltzaileek eta beren inguruak, familiak zein auzokideek aintzat hartzen duten zerbitzua da, eta pertsona askoren bizi-kalitatea bermatzen du (adinekoak, mendetasun egoeran dauden pertsonak, familiaren zama handia duten pertsonak).

que estos apoyos son imprescindibles para la calidad de vida de muchas personas y para la conciliación de la vida familiar y laboral, particularmente en el caso de las mujeres. Es un servicio muy valorado por las personas usuarias y por el resto de su entorno familiar y vecinal, que garantiza la calidad de vida de muchas personas (personas mayores, personas dependientes, personas con cargas familiares importantes).

Xede horretarako, araudi honek 2017. urtean Gipuzkoako udalen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean Gizarte Zerbitzuen **Erakunde Arteko Mahaian adostutako** itunak jasotzen ditu, honako gaien inguruan; intentsitate malguagoak, zerbitzua emateko aukera zehaztea urteko egun guztietan, izaera mugatua, larrialdietako sarbide mota finkatzea eta profil ezberdinetara sarbidea izatea.

A tales efectos este Reglamento recoge los acuerdos que, durante el año 2017, los Ayuntamientos del Gipuzkoa y la Diputación Foral de Gipuzkoa **han acordado en el seno de la Mesa Interinstitucional** de Servicios Sociales, en aspectos como fijar intensidades más flexibles, establecer la posibilidad de ofrecer el servicio, con carácter limitado, durante todos los días del año, afianzar la modalidad de acceso urgente y recoger el acceso de perfiles diferentes.

Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren araudiak ez du Administrazio honetan laguntza pertsonalerako beste zerbitzu batzuk hasteko aukera alde batera uzten, bide berritzaileak izan daitezkeenak pertsonen eta beren bizitzarako beharrizanen artean oreka bat izateko; betiere, eskumena duen organoaren oniritzia izanda.

La regulación del Servicio de Ayuda Domiciliaria no agota la posibilidad de que desde esta Administración puedan iniciarse otros servicios de asistencia personal, que supongan vías innovadoras de ajuste entre las personas y sus necesidades vitales, siempre y cuando estos otros servicios cuenten con el visto bueno del órgano competente correspondiente.

Horrenbestez, udal-araudi honek udaleko etxez etxeko laguntza zerbitzurako sarbidea arautzen du, zerbitzura sartu nahi duten pertsonak balioetsi eta gero, behin zerbitzurako eskubidea aitortua izan zaienean eta arreta pertsonalizaturako plan bat landu denean.

Por tanto el presente reglamento municipal viene a regular el procedimiento de acceso de las personas al servicio municipal de ayuda domiciliaria, una vez que dichas personas han sido valoradas, les ha sido reconocido su derecho de acceso al servicio, y se haya elaborado un plan de atención personalizada.

## LEHEN TITULUA

### 1. artikulua. Xedea.

Arautegi honen xedea da Pasaiako udalerriko etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzea.

## TITULO PRIMERO

### Artículo 1. Objeto.

El presente reglamento tiene por objeto regular la prestación del Servicio de Ayuda al domicilio en el municipio de Pasaia.

**2. artikulua. Aplikazio eremua.**

Arautegi honek arautzen duen zerbitzua Pasaiako udalerrian emango da, udalak gizarte zerbitzuen esparruan dituen eskumenen baitan.

**3. artikulua. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren definizioa.**

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua asistentzia eta prebentzio zerbitzu bat da, erabiltzaileei ahal bezain luzaro norberaren etxean bizitzen jarraitzeko laguntza ematean datzana; horretarako, etxeko laguntza edo/eta laguntza pertsonala eskaintzen zaie, etxean moldatzeko eta beren komunitatean txertatzeko, bakartzea saihestuz.

**4. artikulua. Etxez etxeko zerbitzuaren helburuak.**

Zerbitzuak helburu hauek ditu:

- Autonomia galerari aurrea hartzea, autonomiari eustea edo/eta autonomia galera konpentsatzea. Horretarako, laguntza partziala edo/eta erabatekoa emango da norberaren zaintzarako eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko edo/eta eguneroko bizitzako jarduera instrumentaletarako.

- Erabiltzaileen segurtasun sentipena indartzea.

- Beste zerbitzu batzuen esku-hartzea eska lezaketen beharrizanak antzematea.

- Erabiltzaileak beren komunitatean integra daitezen bultzatzea eta bakartze edo/eta bazterketa egoerak saihestea.

- Norberaren etxean ahalik eta luzaroen eta bizi kalitate egokiarekin bizi daitezen ahalbidetzea, ahal den heinean; horrela, atzeratu edo saihestu egingo da ostatu zerbitzuetan edo egoitzetan sartu beharra.

- Erabiltzaileari laguntzen dion familia-gizarte sareko zaintzaileei laguntzea, eta zaintzari loturik dituzten eginbeharrak neurri batean arintzea, baldintza egokiak izan ditzaten beren garapen

**Artículo 2. Ámbito de aplicación.**

El servicio que se regula en este reglamento se desarrollará en el término municipal de Pasaia dentro del ámbito de las competencias municipales en materia de servicios sociales.

**Artículo 3. Definición del Servicio de Ayuda a Domicilio.**

El Servicio de Ayuda a Domicilio, es un servicio de naturaleza asistencial y preventiva destinado a ayudar a la persona usuaria a permanecer en su domicilio, ofreciéndoles una ayuda de atención doméstica y/o personal que posibilite su desenvolvimiento en el propio domicilio y su integración en el entorno comunitario, evitando situaciones de aislamiento.

**Artículo 4. Objetivos del servicio de ayuda a domicilio.**

Serán objetivos de este servicio:

- Prevenir el deterioro, mantener y/o compensar la pérdida de autonomía y mejorar la misma. Prestando ayuda parcial y/o total para realizar actividades básicas de la vida diaria, necesarias para su cuidado personal, y/o actividades instrumentales de la vida diaria.

- Fortalecer el sentimiento de seguridad de las personas usuarias.

- Detectar situaciones de necesidad que pudieran requerir la intervención de otros servicios.

- Favorecer la integración de las personas usuarias en su entorno comunitario evitando situaciones de aislamiento y/o exclusión.

- Posibilitar, siempre que resulte viable, la permanencia de la persona en el domicilio el mayor tiempo posible, con una calidad de vida aceptable, retrasando o evitando el ingreso en un servicio de alojamiento o centro residencial.

- Ofrecer apoyo a las personas cuidadoras que constituyen la red sociofamiliar de apoyo de la persona usuaria y contribuir a la liberación parcial de su tarea de atención, con el fin de que dispongan de

pertsonal, profesional eta sozialerako.

- Oro har, erabiltzaileaz arduratzen den zaintzaile nagusiaren ordez jardutea, tarteka, hura falta denean.

- Adingabeen zaintzan laguntzea, haien guraso edo tutoreek zaintza egokia ematerik ez dutenean.

- Hainbat faktore psiko-fisiko-sozialen ondorioz krisi egoeran dauden familien bizikidetza giroa hobetzea eta faktore horietatik eratorri ohi diren arriskuei aurrea hartzea.

condiciones adecuadas para su propio desarrollo personal, profesional y social.

- Sustituir ocasionalmente a la persona cuidadora principal, que habitualmente atiende a la persona usuaria, en razón de la ausencia temporal de aquélla.

- Complementar el cuidado de menores cuando sus progenitores o tutores no pueden proporcionarle el mismo de forma adecuada.

- Mejorar el clima convivencial de familias en situación de crisis, causadas por diversos factores psico-fisico-sociales y prevenir los riesgos derivados de los mismos.

## BIGARREN TITULUA

## ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

### I. KAPITULUA. ZERBITZUAN SARTZEN DIREN PRESTAZIOAK ETA ZERBITZUTIK KANPOKO PRESTAZIOAK, ALDAERA ETA EZAUGARRIAK

**5. artikulua. Zerbitzuan sartzen diren prestazioak, osagarriak edo ezohikoak diren beste jarduketa batzuk eta kanpoan geratzen diren prestazioak.**

<u>5.1. Zerbitzuan sartzen diren prestazioak</u>

➔ <u>Informazioa:</u> erabiltzaileei beren eskubideei eta zerbitzuari buruzko informazio egokia eta nahikoa eskuratzeko aukera ematea, behar den denboraz eta behar den moduan.

➔ <u>Jarraipenaren balioespena:</u> arreta Pertsonalizatuko Planaren aldian aldiko ebaluazioak egitea, kasuan-kasuan dagokion sakontasunaz.

➔ <u>Etxeko laguntza:</u> erabiltzaileei eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak egiteko laguntza partziala edo osoa eskaintzen dien prestazioa. Laguntza hori bereziki dagokie elikadurari, jantziei

## TITULO SEGUNDO

## SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO

### CAPITULO I. PRESTACIONES INCLUIDAS Y EXCLUIDAS EN EL SERVICIO, VARIANTE Y CARACTERÍSTICAS

**Artículo 5. Prestaciones incluidas, otras actuaciones complementarias o excepcionales y prestaciones excluidas.**

<u>5.1. Prestaciones incluidas</u>

➔ <u>Información:</u> posibilitar a las personas usuarias acceder en tiempo y forma al conocimiento adecuado y suficiente sobre los derechos y el servicio.

➔ <u>Valoración de seguimiento:</u> realizar evaluaciones periódicas del Plan de Atención Personalizada, con mayor o menor profundidad.

➔ <u>Atención doméstica:</u> Prestación en virtud de la cual las personas reciben ayuda, parcial o total, para realizar las actividades instrumentales de la vida diaria, en particular las tareas relacionadas

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 910
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia
GIZARTE EKINTZA
gizartekintza@pasaia.net


eta erabiltzailea bizi den etxeko instalazioen mantentze garbiketari, ongi antolatzen laguntzeko; prestazio honetan sartzen da, halaber, hala dagokionean, jarduera horiek gauzatzeko beharrezko trebetasunen lanketa.

con la alimentación, el vestido y la limpieza de mantenimiento de las instalaciones de la vivienda donde se desarrolla su vida, facilitando su organización, incluyendo en su caso el entrenamiento en las habilidades necesarias para realizarlas.

a) Elikadurarekin loturikoak

- Otorduak antolatzea eta prestatzea, erabilitako ontzi eta tresnak garbitzea eta jasotzea barne.
- Janaria erostea.
- Erabilitako ontziak eta tresnak garbitzea eta lehortzea.

a) Relacionadas con la alimentación:

- Planificación y preparación de comidas incluido limpieza y recogida de los elementos utilizados.
- Compra de alimentos.
- Limpieza y secado de los utensilios utilizados.

b) Jantziekin loturikoak:

- Arropa etxean garbitzea.
- Arropa lehortzen jartzea.
- Arropa gainbegiratzea.
- Arropa antolatzea eta gordetzea.
- Arropa etxean lisatzea eta tolestea.
- Arropa erostea.
- Erabili beharreko elementu guztiak prestatzea eta jasotzea.

b) Relacionadas con el vestido:

- Lavado de ropa en el domicilio.
- Colgado de ropa para que se seque.
- Repaso de la ropa.
- Ordenación y guardado de la ropa.
- Planchado y doblado de ropa en el domicilio.
- Compra de ropa.
- Preparación y guardado de todos los elementos utilizados.

c) Etxebizitza mantentzearekin lotura dutenak:

- Etxea txukuntzea.
- Gainaldeak produktu egokiekin garbitzea.
- Erabilitako elementuak garbitzea eta jasotzea.
- Hautsa kentzea.
- Zorua garbitzea eta xurgagailua pasatzea.
- Errezelak eta leihoak zabaltzea, etxea aireztatzea.
- Komuna garbitzea.
- Sukaldea garbitzea.
- Leihoetako kristalak garbitzea.
- Zaborra zaintzea eta ateratzea.
- Zerbitzua hasi aurretiko garbiketa orokorra.
- Jabekideen erkidegoko espazioak garbitzea.

c) Relacionadas con el mantenimiento de la vivienda:

- Poner en orden la casa.
- Limpiar las superficies con los productos adecuados.
- Limpiar y recoger elementos utilizados.
- Quitar el polvo.
- Fregar suelos y pasar la aspiradora.
- Abrir cortinas y ventanas, airear.
- Limpiar cuarto de baño.
- Limpiar cocina.
- Limpiar los cristales de ventanas.
- Supervisar y bajar la basura.
- Limpieza de choque previa al inicio del servicio.
- Limpieza de espacios de la comunidad de

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 910
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

GIZARTE EKINTZA
gizartekintza@pasaia.net



propietarios/as.

- Ohea egitea eta oheko arropa aldatu eta arropa zikina kentzea.

- Hacer la cama y cambiar la ropa de cama y retirar la ropa sucia.

➔ <u>Laguntza pertsonala:</u> erabiltzaileei honako jarduera hauek egiteko laguntza partziala edo osoa eskaintzen dien prestazioa:

➔ <u>Atención personal:</u> prestación en virtud de la cual las personas usuarias reciben ayuda, parcial o total, para realizar:

a) <u>Zaintza pertsonalarekin loturiko beharrezko eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak</u>, bereziki, ohetik altxatzea eta oheratzea, norberaren garbitasuna, jatea edo oinarrizko beste funtzio batzuk;

a) <u>Actividades básicas de la vida diaria</u> necesarias <u>para su cuidado personal,</u> en particular, para levantarse y acostarse, asearse, desplazarse, comer u otras funciones básicas;

- Mugikortasunarekin eta ingurunean moldatzearekin loturikoak:

- Relacionadas con la movilidad y desenvolvimiento en el entorno:

- Ohetik altxatzeko, oheratzeko edo eserlekutik altxatzeko laguntza, lagungarri teknikoak baliatuta, halakorik balego.

- Ayuda para levantarse, acostarse e incorporarse del asiento utilizando las ayudas técnicas si las hubiera.

- Etxean nahiz etxetik kanpo batetik bestera mugitzeko laguntza (komunera, gela batetik bestera, eskolara, garraiora, eguneko zentroetara, osasun etxeetara joateko laguntza), lagungarri teknikoak baliatuta, halakorik balego.

- Ayuda a la deambulación dentro y fuera del hogar utilizando las ayudas técnicas si las hubiera (acompañamiento al cuarto de baño, desplazamiento entre habitaciones, acudir a centros escolares, al transporte, a centros de día, centros de salud).

- Garbitasun pertsonalarekin loturikoak:

- Relacionados con la higiene personal:

Garbiketa eta higiene pertsonala (lagungarri teknikoak baliatuta, halakorik balego; azazkalak moztea, bizarra egitea, ilea garbitzea, azala hidratatzea eta arropak aldatzea).

Aseo e higiene personal (incluye el uso de ayudas técnicas si las hubiera, el cuidado de uñas, afeitado, lavado de cabello, hidratación de la piel, higiene bucal y cambio de ropa).

- Jatearekin loturikoak:

- Relacionadas con el comer:

- Jateko laguntza.
- Edateko laguntza.
- Janaria berotzea
- Erabilitako tresnak eta ontziak garbitzea eta jasotzea.

- Ayuda para comer.
- Ayuda para beber.
- Calentar la comida.
- Limpiar y recoger los elementos utilizados.

- Jantziekin loturikoak:

- Relacionadas con el vestido:

- Janzteko eta eranzteko laguntza.
- Eguneroko arropa prestatzea.

- Ayuda para vestirse y desvestirse.
- Preparación de la ropa diaria.

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 910
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia
GIZARTE EKINTZA
gizartekintza@pasaia.net


b) Jarduera instrumentalak, ingurunearekiko lotura ahalbidetzen dutenak, bereziki, komunikaziokoak (telefonoa erabiltzea, gutunak idaztea…) eta familiarengana eta komunitatearengana iristeko beharrezkoak.

Oro har, aurreko egitekoekin lotura duten aurretiko jarduerak, egiteko horiek gauzatzeko elementuak prestatzea edo/eta haietatik eratorritako jarduerak.

Bereziki, hala badagokio, edozein eginkizunetarako beharrezko trebetasunen lanketa.

- Komunitatearekiko harremanarekin loturikoak:

• Haurtzaindegi, ikastetxe, garraio, eguneko zentro, osasun etxe, komunitate-ekipamendu eta abarretara iristen laguntzea.

- Ingurunearekiko komunikazioarekin loturikoak.

• Eskariak egiteko, gutunak jasotzeko, gutunen eta abarren edukia ulertzeko laguntza, etxean.

• Komunikazioa erraztea banketxeekin, osasun etxeekin…; errekurtsoak izapidetzea; dokumentazioa eskatzea eta entregatzea, etab.

- Osasunarekin loturikoak:

• Medikuak agindutako botikak (ahotik hartzekoak) erostea, kontrolatzea eta behar bezala hartzen diren gainbegiratzea.

• Medikuekiko hitzorduen kontrola eta jarraipena.

- Zaintzarekin loturikoak

• Adingabeentzako zerbitzuetan, ingurune komunitarioan aritzeko laguntza eta adingabearen zaintza gauzatzean suertatzen diren bestelako egitekoak.

➔ **Gizarte laguntza:** gizarte zerbitzuen berariazko zerbitzua, berezkoa, zeinaren bidez pertsonek aukera duten profesional kualifikatu

b) Actividades instrumentales que las vinculen con su entorno, en particular, para comunicarse (usar el teléfono o escribir una carta) y acceder al entorno familiar y comunitario.

En general todas aquellas actuaciones que sean actuaciones previas, preparación de elementos y/o actuaciones que se deriven, que sean consecuencia de las tareas anteriores.

En particular si procediese el entrenamiento en las habilidades necesarias para realizar cualquier tarea.

- Relacionados con el acceso al entorno comunitario:

• Facilitar el acceso a guarderías, centros escolares, transporte, centros de día, centros de salud, equipamientos comunitarios, etc.).

- Relacionadas con el acceso a la comunicación con el entorno.

• Apoyo dentro del hogar en la formalización de solicitudes, recogida de correspondencia, explicación de cartas y otros.

• Facilitar comunicación con (entidades bancarias, de salud, tramitación de recursos, solicitud y entrega de documentación, etc.).

- Relacionados con el mantenimiento de la salud.

• Compra, control y seguimiento de la administración de la medicación oral, señalada por el o la médica.

• Control y seguimiento de las citas médicas.

- Relacionados con la guarda

• En servicios con menores, acompañamientos en el entorno comunitario y todas aquellas tareas que se requieran en el ejercicio de la guarda del o de la menor.

➔ **Acompañamiento social:** prestación más genuina y característica de los servicios sociales, en virtud de la cual la persona participa, en interacción

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 910
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia
GIZARTE EKINTZA
gizartekintza@pasaia.net


batekin beren kasa hobeto moldatzeko eta gizarteratzeko laguntza harreman batean parte hartzeko.

Erabiltzaileari aukera ematen dio bere egoera aztertzeko, bere autonomia eta gizarteratze maila mantentzeari edo hura garatzeari buruz zer helburu dituen zehazteko eta helburu horiek betetzeko erreferentziazko pertsona bat edukitzeko, zeinaren bidez ondorengo laguntza hauek jasoko dituen prozesuan zehar:

a) Instrumentala (baliabide eta beste sistema batzuetako zerbitzuetara nahiz laguntzako gizarte/familia sareetara –familia, lagunak, komunitatea– harreman sareetara iristeko informazioa, orientazioa eta bitartekaritza).

b) Emozionala (kaltea murriztea, sostengua, babes emozionala eta orientazioa krisi egoeretan…).

c) Hezkuntzakoa (eguneroko bizitzako eta gizarteratzea sustatzeko oinarrizko jarduerak, jarduera instrumentalak nahiz jarduera aurreratuak egiteko trebetasunak hartzea, jokabideak aldatzea…).

d) Harremanei loturikoa (entzute aktiboa, gizarte harremanak edo/eta harreman pertsonalak egiteko edo mantentzeko trebetasunak hartzea, harremanak egiteko aukerak sortzea).

Gizarte laguntzaren intentsitatea aldatu egin daiteke pertsonaren beharrizanen arabera. Horrela, erabiltzailearen laguntza beharrizanaren intentsitatea aldatzea ahalbidetuko duten ibilbideak plantea litezke (betiere, kontuan harturik intentsitatea murriztea dela desiragarria).

**5.2. Beste jarduketa osagarri edo ezohiko batzuk :**

➔ Higiene arazo larriak dituzten etxeetako garbiketa orokorra.

➔ Higiene eta osasungarritasun arazo larriak dituzten etxeak hustea eta garbitzea.

con una o un profesional cualificado, en una relación de ayuda que contribuye a mejorar su desenvolvimiento autónomo e integración social.

Permite a la persona usuaria contrastar su situación, explicitar sus objetivos en relación con el mantenimiento o desarrollo de su autonomía personal y su integración social (acompañamiento para la inserción) y contar, para alcanzarlos, con una persona de referencia que, a lo largo de un proceso, sea capaz de ofrecerle apoyo:

a) Instrumental (información, orientación y mediación para el acceso a recursos y servicios de otros sistemas así como a redes socio/familiares de apoyo –familia, amistades, comunidad– y relación).

b) Emocional (reducción del daño, contención, soporte emocional y orientación en situaciones de crisis...).

c) Educativo (adquisición de habilidades para realizar actividades básicas, instrumentales y avanzadas de la vida diaria y para la integración social, modificación de actitudes...).

d) Relacional (escucha activa, adquisición de habilidades para mantener o establecer relaciones sociales y/o personales, generación de oportunidades para el establecimiento de relaciones).

Puede ser más o menos intenso en función de la necesidad de apoyo de la persona. Se entiende que cabe plantear itinerarios en los que la persona usuaria vaya variando (deseablemente reduciendo) la intensidad del acompañamiento requerido.

**5.2. Otras actuaciones complementarias o excepcionales.**

➔ Limpiezas generales en domicilios con graves problemas de higiene.

➔ Vaciado y limpieza de domicilios con graves problemas de higiene y salubridad en colaboración

**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
**Luz./Ext.** 910
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

GIZARTE EKINTZA
gizartekintza@pasaia.net



con la autoridad sanitaria.

➔ Egoera bereziei erantzunez, zerbitzuaren helburuak lortzeko ezinbesteko jotzen diren beste jarduera batzuk gauzatu ahal izango dira, gizarte langintzako teknikariak hala proposatuz gero eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak jarduera horiek berariaz baimenduz gero.

➔ Atendiendo a circunstancias especiales podrán prestarse otras actuaciones que se consideren imprescindibles para lograr los objetivos del servicio siempre a propuesta de la persona técnica en trabajo social y que sean expresamente autorizadas por la Dirección de Servicios Sociales.

**5.3. Zerbitzutik kanpoko jarduketak:**

Ondorengo jarduerak etxez etxeko laguntza zerbitzutik kanpokotzat jotzen dira:

➔ Etxebizitza berean bizi arren, udal zerbitzu teknikoek zerbitzuaren onuradun jotzen ez dituzten pertsonen laguntza pertsonala.

➔ Etxebizitza berean bizi arren, zerbitzuaren onuradun jotzen ez diren pertsonak zuzenean mesedetzen dituen etxeko laguntza.

➔ Prestakuntza espezifikoa eskatzen duten osasun arloko jarduerak, hala nola, indizioak jartzea, intsulina edo heparina ematea, tentsioa hartzea, zundak eta zarakarrak tratatzea, ezagutza espezifikoa eskatzen duten botikak ematea eta horien antzerakoak.

➔ Etxean konponketak egitea: margotzea, etab.

**5.3. Actuaciones excluidas:**

Se consideran actuaciones excluidas del servicio de ayuda domiciliaria las siguientes:

➔ Atención personal a otras personas que habiten en el mismo domicilio y no se consideren personas beneficiarias del mismo por la valoración de los servicios técnicos municipales.

➔ Aquellas actuaciones de apoyo doméstico cuya realización favorezca directamente a las demás personas que habiten en el domicilio y no se consideren beneficiarios.

➔ Actuaciones de carácter sanitario, que precisen una formación específica del personal que lo realiza, como poner inyecciones, administrar insulina o heparina, tomar la tensión, colocar y quitar sondas, tratamientos de úlceras y escaras, suministros de medicación que impliquen conocimientos específicos y otros similares.

➔ Realización de arreglos en el hogar: pintar, etc.

**6. artikulua. Zerbitzuaren aldaera: atsedenerako zerbitzua**

Bere helburua da, mendekotasun egoeran edo egoera horretan egoteko arriskuan dagoen pertsona, aldi batez EELZn sartzea edo zerbitzu horretan ordura arte eskaintzen zen laguntzaren intentsitatea areagotzea, zaintzaile nagusiaren atsedena gauzatzeko.

**Artículo 6. Variante del Servicio: servicio de respiro**

Consiste en atender con el SAD a la persona en situación o riesgo de dependencia con el fin de posibilitar un descanso a la persona cuidadora principal o reforzar temporalmente la intensidad ya ofrecida en dicho servicio con la misma finalidad.

**7. artikulua. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ezaugarriak**

Etxez etxeko laguntza zerbitzua onuradunak lo egiten duen edo/eta eguna igarotzen duen tokian (ingurunean) emango da, Pasaiako udalerrian.

**Artículo 7. Características del Servicio de Ayuda a Domicilio.**

El servicio de ayuda a domicilio se prestará con carácter general en el lugar(entorno) donde pernocta y/o pasa el día la persona beneficiaria, dentro del término municipal de Pasaia.

- Laguntza emateko egunak

Oro har, urteko egun guztietan emango da zerbitzua, jarraibide teknikoen arabera.

- Zerbitzuaren intentsitatea

Zerbitzuaren denbora mugak erabiltzaileen beharrizanen banakako ebaluazioaren arabera zehaztuko dira. Gehienez ere, asteko hogeita zortzi orduko laguntza emango da. Gehieneko hori malgutasunez banatu ahal izango da, baldin eta profesionalen irizpideen arabera malgutasun hori beharrezkoa bada erabiltzaileak etxean jarraitzea errazten edo/eta ahalbidetzen duten zaintzak osatzeko edo/eta ordezkatzeko.

Orduak 15 minutu baino gutxiagokoak ez diren tarteetan banatuko dira, eta sarrera bakoitzean zerbitzuak gutxienez 30 minutuko iraupena izango du; fakturatutako ordu edo tarte bakoitza lanean egindako denborari dagokiola ulertuz.

- Laguntzaren ordutegiak

Zerbitzuaren ordutegia malgua da; nagusiki, 07:00etatik 22:00etarako ordutegiaren barruan emango da.

Nolanahi ere, zerbitzuaren ordutegia zabaldu egin ahal izango da, balioespen teknikoaren arabera, muga batzuen barruan.

➔ Laguntza pertsonalari dagokionez, udal teknikariek zehaztuko dute ordutegia, laguntza eskatzailearen ohiko ordutegiak eta beharrizanak kontuan hartuta.

➔ Etxeko laguntzari eta gizarte laguntzari dagokien zerbitzuetarako, udal teknikariek zerbitzua ematen duen enpresarekin batera zehaztuko dute ordutegia, zerbitzu horiek ematen dituzten langileen ordutegien arabera.

- Días de atención:

Con carácter general, el servicio se podrá prestar durante todos los días del año en función de la prescripción técnica.

- Intensidad del servicio:

Los límites temporales de prestación del Servicio se establecerán en función de la evaluación individualizada de las necesidades de las personas usuarias. La prestación máxima será de veintiocho horas a la semana. Este máximo podrá ser distribuido con mayor flexibilidad si a criterio profesional se valora como necesario para complementar y/o sustituir cuidados que favorezcan y/o permitan el mantenimiento de la persona en el domicilio.

Las fracciones horarias se establecerán en divisiones no inferiores a 15 minutos y el tiempo mínimo de prestación del servicio para cada entrada será de 30 minutos, entendiéndose que cada hora o fracción facturada corresponde a tiempo de trabajo efectivo.

- Horarios de atención

El horario general del servicio es flexible y se desarrollará principalmente de 7:00 a 22:00 horas.

Con carácter limitado, se podrá ampliar el horario del servicio más allá de las horas establecidas, en función de la valoración técnica.

➔ En la prestación de apoyo personal, el personal técnico municipal establecerá el horario teniendo en cuenta las costumbres horarias y necesidades de la persona solicitante.

➔ En las prestaciones de apoyo doméstico y de acompañamiento social, el personal técnico municipal junto con la entidad prestataria del servicio, establecerá los horarios en función de la disponibilidad horaria del personal que realiza los servicios.

## II. KAPITULUA. ERABILTZAILEAK

### 8. artikulua. Erabiltzaileak zehaztea

Oro har, ondorengo profila izango dute zerbitzu honen erabiltzaileek: autonomia galeraren edo ahultasun egoeraren ondorioz, norberaren etxebizitzan bizitzen jarraitu ahal izateko eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko laguntza –aldi batekoa nahiz iraunkorra– behar duten pertsonak edo/eta familiak.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuak ezartzen duenari jarraituz, mendekotasun egoeran edo mendekotasuna jasateko arriskuan dauden pertsonei zuzendutako zerbitzua da etxez etxeko laguntza zerbitzua.

Honako pertsona edo/eta familia hauek ere izan daitezke etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileak:

- Beren kasa moldatzeko zailtasunak direla medio eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak edo/eta jarduera instrumentalak gauzatzeko laguntza behar duten pertsonak.

- Familiek zaindu ezin dituzten edo behar duten zaintza eta arreta eman ezin dieten adingabeak.

- Zama astunegia, harreman gatazkatsuak, gizarte egoera egongaitzak edo/eta gaixotasun fisiko edo/eta psikikoen ondoriozko arazoak dituzten familiak edo pertsonak, eguneroko bizitzako jardueretarako laguntza partziala edo erabatekoa behar dutenak.

- Aldi bateko gaixotasun edo gaixotasun terminal batek jotako pertsonak, gaixotasunaren ondorioz eguneroko bizitzako jardueretarako beste norbaiten laguntza behar dutenak.

- Kasuaren arduradunaren iritziz eta haren irizpideei jarraituz zerbitzu honen arreta jasotzea dagokien pertsona edo/eta egoerak, Gizarte

## CAPITULO II. DE LAS PERSONAS USUARIAS

### Artículo 8. Determinación de las personas usuarias

Con carácter general el perfil de las personas usuarias de este servicio se corresponderá con el de aquellas personas y/o grupos familiares que requieran, en razón de su pérdida de autonomía, o situación de vulnerabilidad, de la intervención temporal o permanente de un servicio de apoyo en las actividades básicas de la vida cotidiana para continuar residiendo en su domicilio habitual.

En el marco el Sistema Vasco de Servicios Sociales el servicio de ayuda a domicilio está dirigido, conforme establece el Decreto 185/2015, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, a las personas en situación de dependencia y a personas en riesgo de dependencia.

Además podrán ser destinatarias del servicio de ayuda a domicilio las siguientes personas y/o grupos familiares:

